


2012an Euskal AEko Herri Administrazioek 2.065 milioiko defizita izan zuten

Defizit hori aurreko urtekoa baino %22,7 txikiagoa da.

Euskal AEko Herri Administrazioen (euskal administrazioak, estatuarena eta Gizarte segurantzaren lurralderatuak) defizita 2.065 milioi izan zen 2012an, SEC2010 Kontuen Europar Sistema berriarekin, Eustaten datuen arabera.

2012an finantzaketa edo defizit beharra %22,7 gutxitu da 2011ren aldean; batetik, finantza-baliabideak %0,5 gehitu zirelako eta bestetik, ez-finantzetako enpleguak %1,8 gutxitu zirelako. 2010-2012 aldian finantzaketa-beharra %16,9 gutxitu da urteko tasa metatuan.

1. grafikoa. Euskal AEko Herri Administrazioen finantzaketa beharren bilakaera (milaka euro)



Iturria: EUSTAT. Herri administrazioen kontu ekonomikoak. SEC2010

Ez-finantzetako baliabideak aztertuz, errenta, ondare eta abarren zergak, zeinak baitira baliabide guztien %26,3, %3,5 gehitu ziren 2011ren aldean; baliabideetara gehien ekartzen duten beste bi sekzioak gutxitu egin ziren 2011ren aldean, Ekoizpen eta inportazioen zergak (baliabideen %27,2) %2,9 eta Gizarte kotizazioak (baliabideen %32,9) %3,4.

1. taula: Euskal AEko Herri Administrazioen baliabide-enplegu ez-finantzetakoak 2012. urtea (milaka euro)

	2012	2012/2011 (%)
Ez-finantzetako baliabideak	24.337.800	0,5
Merkatuko ekoizpena eta azken erabilera propioarentzako ekoizpena	1.135.008	4,8
Beste ekoizpen ez-merkatuko batengatik ordainketak	207.710	5,0
Zergak/ekoizpena eta inportazioak (kobratzekoak)	6.620.347	-2,9
Jabetza-errentak	424.253	20,8
Zergak/ errenta, ondarea e.a.	6.402.235	3,5
Gizarte-kotizazioak	8.008.832	-3,4
Beste transferentzia arruntak	1.365.469	18,4
Kapital-zergak (kobratzekoak)	151.995	4,7
Inbertsiorako laguntzak (kobratzekoak)	421.667	918,7
Bestelako kapital-transferentziak (kobratzekoak) (1)	-399.717	574,4
Ez-finantzetako enpleguak	26.402.390	-1,8
Soldatuen ordainketa	6.226.587	-5,2
Bitarteko kontsumoa	3.590.900	-7,3
Diru-laguntzak (ordaintzekoak)	455.647	-16,3
Beste ekoizpen-zerba batzuk	30.540	6,5
Jabetza-errentak	309.888	18,7
Transferentziak ez diren gizarte-prestazioak Gauzazko sozialak.	10.230.416	2,8
Gauzazko gizarte-transferentziak Merkatuan erositako ekoizpena	2.026.261	5,4
Beste transferentzia arruntak	844.547	30,4
Kapital eraketa gordina	1.841.625	-20,7
Kapital-transferentziak (ordaintzekoak)	797.264	10,9
Ez-finantzetako aktibo ez ekoizten erosteko garbiak	48.715	23,5
Aurrezki garbia	-226.860	-42,4
Finantzatzeko gaitasuna (+) beharra(-)	-2.064.589	-22,7

Barne ditu nekez lortuko den diru-bilketagatiko kapital-transferentziak

Iturria: EUSTAT. Herri Administrazioen Kontu Ekonomikoak SEC2010

Ez-finantzetako enpleguetan, 2011ren aldean, Soldatuen ordainketa gehi Bitarteko kontsumoa (enpleguen %37,2) %6 gutxitu zen. Gutxitu egin ziren, baita ere, Ordaintzeko diru-laguntzak (%16,3) eta Kapital Eraketa Gordina (%20,7). Gainerako enpleguak gehitu egin ziren. Zehazki, Gizarte prestazioak (barne dituzte pentsioen gastua eta gizarte-laguntzako beste zenbait prestazio) %2,8 gehitu ziren, enpleguen %38,7raino, 2011n baino ehuneko 1,7 puntu gehiago. Gauzazko Gizarte-transferentziak: Merkatuan erositako ekoizpena (kontzertuen gastua barne) %5,4 gehitu zen; Beste transferentzia arruntak %30,4 eta Kapital transferentziak %10,9.

Erakundeak aztertuz, Estatuaren Administrazio Lurralderatuak 604 milioiko superabita zeukan 2012an eta Gizarte Segurantzaren Lurraldetuak 1.541eko defizita. Biak baturik 937 milioiko defizita zegoen 2012an, aurreko urtearen aldean %85,4 gehiago. Gizarte Segurantzaren Lurralderatuan, saldo negatiboa 2011ko 1.136 milioietatik 2012ko 1.541etara gehitu zen, ez-finantzetako baliabideak gehiago murriztu zirelako ez-finantzetako enpleguak baino; zehazki Gizarte kotizazioengatik baliabideak %2,0 murriztu ziren eta Gizarte prestazioetako enpleguak %3,8 gehitu.

Euskal Administrazioetan finantzazio-beharra 1.128 milioi izan zen 2012an, 2011n baino 1.038 milioi gutxiago. Eusko Jaurlaritzaren finantzazio beharra 2011ko 1.759

milioi negatiboetatik 2012ko 938etara gutxitu zen. Arabako foru eta udal administrazioetan 2011ko 87 milioi negatiboetatik 2012ko 64 positiboetara; Bizkaian 2011ko 154 milioi positiboetatik 2012ko 104 negatiboetara; Gipuzkoan 474 negatiboetatik 150etara.

2. taula: Euskal AEko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantza-gaitasuna (+) edo finantza-beharra (-). 2010 (milaka euro)

	1.- Finantzazkoak ez diren baliabideak	2.- Finantzazkoak ez diren erabilerak	3.- Aurrezki garbia	4.- Finantzatzeko ahal. (+) eta beh. (-)
Herri administrazioak	24.134.486	26.886.621	-677.436	-2.752.135
EAEn dauden Estatuko administrazioa+ Gizarte Segurantz	10.333.483	10.938.028	-298.471	-604.545
EAEn dagoen Estatuko administrazioa	2.459.504	2.204.379	505.748	255.125
EAEn dagoen Gizarte Segurantz (**)	8.072.310	8.931.980	-804.219	-859.670
EAEko administrazioak (*)	16.202.140	18.349.730	-378.965	-2.147.590
Eusko Jaurlaritza	9.273.496	10.879.009	-570.180	-1.605.513
Araba/Álava	2.594.963	2.681.280	-211.113	-86.316
Bizkaia	8.050.720	8.187.708	367.077	-136.988
Gipuzkoa	5.036.764	5.355.537	35.251	-318.773

Ikusi ohar metodologikoa 2012

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen kontu ekonomikoak

2010-2012 urteetan Herri Administrazioen **azken gastuaren egitura** aldatu egin da. Kapital Eraketa Gordinaren parte-hartzea gastuan gutxitu egin da, 2010eko %18,5etik 2012ko %14,1era. Azken Kontsumoaren Gastuaren parte-hartzea ehuneko 4,4 puntuz gehitu da, %81,5etik %85,9ra. Azken Kontsumoaren Gastua batuketa da; batetik, administrazioen gastua ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean; bestetik, merkatuko ekoizleek familia-etxeentzako ekoiztiko ondasun eta zerbitzuen erosketa.

3. taula. Herri administrazioen azken eskaria. Euskal AE. 2010-2012 (milaka euro)

	2010	%	2011	%	2012	%
Herri administrazioen azken kontsumoko gastua	11.870.586	81,5	11.786.316	83,5	11.207.500	85,9
Herri administrazioen kapital finkoaren eraketa gordina	2.694.585	18,5	2.321.491	16,5	1.841.625	14,1
Barne eskari publikoa	14.565.171	100,0	14.107.807	100,0	13.049.125	100,0

Iturria: EUSTAT. Herri administrazioen kontu ekonomikoak. SEC2010

Oharra: Euskal AEko Herri Administrazioen Kontu Ekonomikoak 2012 SEC2010 Kontuen Europar Sistemaren aldaketa metodologikoa aintzat hartuta burutu dira. 2010 eta 2011ko datuak eguneratu egin dira eta laster seriearen birzenbatespena egingo da. Informazio gehiago: Ohar Metodologikoa-2012

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea (EUSTAT).

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

Herri-administrazioen kontu ekonomikoei buruzko prentsa-ohar gehiago

Herri administrazioen kontu ekonomikoei buruzko datu-bankua